



Bihar 8:00etan festak eztanda egingo du.- Ordu batzuk besterik ez dira falta, Euskararen 8. Maratoiari hasiera emateko. 40 orduz euskarak Okendo plaza hartuko du. Asteazkenean Okendo plazan lanean aritu dira ikusmina sortu duen Maratoiako karpa erraldoia eta azpiegitura guztia muntatzen. Azkeneko xehetasunak falta dira, oholtzako eta karpako dekorazioa edo taldeen azken entseguak, esate baterako. Baina guztia prest izango da bihar goizean zortzikoteak eta udal ordezkariak euskararen festa handiari hasiera emateko. Ekintza ugari eta adin guztien gustukoak izango dira asteburu honetan Okendo plazan. Hurbildu eta atera dezagun euskara bihotzetik plazara!!!!

**Euskararen
8. maratoi
ale berezia
asteartean**

Euskararen 8. Maratoia dela eta, asteleheneko TXINTXARRI aldizkaria asteartean, urriaren 23an argitaratuko dugu. Ale berezi honetan maratoi-ko argazkirik esanguratsu eta berezienak aurkeztuko ditugu.

**3 HAUTESKUNDEAK
EH Bildu
koalizioaren
ekitaldia Okendon**

Gipuzkoako hautagaia den Iñaki Isasi eta Rebeka Ubera izan ziren asteazkenean EH Bildu koalizioak Okendon antolatutako ekitaldi politikoan. Alderdiak Eusko Legebiltzarrerara eramango duen programa Lasarte-Oriako herritarrei aurkeztu nahi izan zien.

**3 HEZKUNTZA
Usurbilgo Lanbide
eskolak Udal-Ofizio
eskola erabiliko du**

Lasarte-Oriako Udalak eta Usurbilgo Lanbide eskolak lankidetzaz hitzarmenaren sinatu dute. Honen bitartez, Lanbide eskolak Udal-Ofizio eskola erabili ahaliko du enplegu eta bizi osoko formakuntza eskaintzeko. Autoformakuntza eta In-formatzen zerbitzua ere bertan izango dira.



Bideo Lagunak



Betiko zerbitzua
gure aholkularitza
onenarekin

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Inguruko erakusketarik
onena!



Neure kabuz



Mailu Arruti

Harri zulatzaileak

Duela urte batzuk ikasi nuen autozentratzea zer den. Bakoitzaren errealitatetik, bakoitzaren egoeratik, pentsatzea, sentitzea. Simplea dirudi eta begien bistakoa. Baina egiten eta esaten ditugun gauzei erreparatu ez gero, sarritan konturatzen gara ez dugula hala egiten. Hizkuntzari dagokionean, generoari dagokionean, herri ikuspegitik ari garenean e.a.

Meatzerriak, Bizkaiko mendealdeko eskualdeak eman dit irudia. Hain ezezaguna zaigun eskualde horrek. Euskal Herria modernoaren iraultzaren sehaska da meatzerria. Eskualde horretan XX. mende hasieran esaten zuten oheak ez zirela sekula hozten. Langile, mehatzari, bat jaiki eta bestea etzaten zela lotara ohe berdinean.

In-de-pen-dentzia! In-de-pen-dentzia! In-de-pen-dentzia!

Harri zulatzaileak danba danba kare-haitzari. Laguntzaileak, ura zuloari. Danba eta danba puntu berdinean. Insistitu. Urratu arte. Danba eta danba kare-haitza pitzatu arte.

Pitzatu da eta bi zati jaustear daude. Catalunya eta Euskal Herria.

BECen ikusitako castellersak malkoa bota arazi zidaten. Irudi hori ez dut sekula ahaztuko. Zeinen garrantzitsua den oinarri sendoa erakitzea. Zenbat laguntzaile behe mailan, arinagoak gora, arinagoak gora eta azkenik haurrak, (etorkizunak), lortzen du gailurra. Helburua.

Danba eta danba puntu berdinean. Insistitu, pitzatu arte. Guretik, gure izatetik, gure sentimendutik, gure ikuspegitik, gure etorkizunagatik.

Autozentra gaitetzen! Pentsa dezagun guretik beraz, eta eman diezaiozun independentzia Espainia gajoari!

Zorion agurrak



Lander

Zorionak txapeldu! Zazpi muxu handi familiaren partetik.



Ekaitz

Zorionak zure hirugarren urtebetetzearen etxekoan partetik.



Asier eta Andoni

Zorionak bikote familia guztiaren partetik.



Bea eta Tomas

Zorionak aita eta ama ezkontzatik 25 urte betetzean eta ea beste 25 urte betetzen dituzten.



Mario

Zorionak! 8 muxu pottolo izeba, osaba, Eneko eta Aneren partetik.



Aitor

Bihotzetik zorionak plazaratu nahi ditugu. Ederki ospatuko dugu elkarrekin bihar.



Gaizka

Zorionak bihurritxo!!! 3 muxu potolo potolo familia guztiaren partetik!



Uxue

Zorionak polita!!! 5 muxu handi bat Eneko, aita, ama eta familiaren partetik



Eneritz

Zorionak bihotza!. Muxu potolo bat aita-txo, amatxo eta Haritzaren partetik!



Zuhaitz

Zorionak maittia!! Hamarmila muxu eta 6 besarkada zure urtebetetzean. Oso ondo pasa



Txema

Zorionak zure emaztea, Joana, Enara eta Maiteren partetik.



Xabier

Zorionak! zutaz ahaztuko ginela uste al zenuen??

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649 526 766.
- Logela alokairuan kultur etxetik gertu. Pertsona arduratsu, ez erretzailea eta lasaia bilatzen da. Interesa duenak telefono honetara deitu: 646 756 555.
- Logela alokairuan kultur etxetik gertu. Pertsona arduratsu, ez erretzailea eta lasaia bilatzen da. Interesa duenak telefono honetara deitu: 698 496 114.
- Pisua alokatzen da Lasarte-Orian. 9. pisua, hegoaldera begira, eguzkitsua. 3 logela, sukaldia, komuna eta 2 balkoi. 649 424 826. Josune.
- 116m2-ko aparteko pisua salgai edo alokairuan, Iñigo de Loyola, 2. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Sartzeko prest: 639 738 413.

Salerosketak

- Hyundai I10 autoa salgai, lau urte eta 16.000 km bakarrik. 666 320 520.

Lan-eskariak

- Emakumea nagusiak, haurrak zaindu, edota garbiketa lanetan aritzeko. Mirna 619 803199.
- Ikaslea eskaintzen da arratsaldetan haurrak zaindu edo etxeko lanak egiten laguntzeko. Harremanetarako, 630 941 996.
- Lasarten bizi den esperientziadun emakumea etxeko lanetan aritzeko prest edozein ordutegitan, referentzia onak. Carmen Patricia 628 987 559.
- Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 666 708 963.
- Ume edo aiton-amonak zaintzen, etxeko

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Amets Lizeaga Garcia, urriaren 12an.
- Luana Magali Trombotti Juarez, urriaren 9an.



Heriotzak

- Basi Barquilla Pablos, urriaren 16an, 80 urte zituela.
- Joxe Urruzola Sarasola, urriaren 16an, 72 urte zituela.
- Benjamin Bardaji Garcia, urriaren 16an, 64 urte zituela.
- Marian Galan Simon, urriaren 16an, 51 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 19**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Larunbata, 20**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 21**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 22**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteartea, 23**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Asteazkena, 24**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Osteguna, 25**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chucua, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

- edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Doris 943 404 015.
 - Mutil arduratsua eskeintzen da. Seriotasun handikoa edozein lanerako. Telefono: 646 756 555
 - Neska arduraduna esperientzia eta erreferentzia onekin ordukako lana bilatzen du, haur, zein pertsona adindua zaintzen. Harremanetarako, 639 274 396.
 - Pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea eskaintzen da gautean edo edozein ordutegian ospitalean edo etxean dauden pertsonak zaintzeko. Referentziak eta paperak ditu. Harremanetarako, 647 657 071 edo 696 741 549.
- Bestelakoak**
- Pisukidea bilatzen da logela bat betetzeko. Etxebizitza Zabaleta auzoan dago kokatua. Pisukideak gazteak dira. Gastu guztiak barne, 250 euro. Harremanetarako, 635 20 55 61, Ane.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

HAUTESKUNDEAK



Iñaki Isasi Gipuzkoako hautagaia izan zen Okendon antolatutako ekitaldi politikoan.

EH Bildu Okendon

Iñaki Isasi eta Rebecka Ubera izan ziren ekitaldi politikoan

Gipuzkoako hautagaia Iñaki Isasi eta Rebecka Ubera izan ziren asteazkenean EH Bildu koalizioaren programa Lasarte-Oriako herritarrei aurkezten. Ekitaldia txalaparta doinuekin hasi zen, musika eta Mailu Arrutiren antzezpena izan zen ere.

Maider AZURMENDI

Hauteskunde kanpaina herrian nabaritu da egun hauetan. Asteazkenean EH Bildu koalizioa Iñaki Isasi eta Rebecka Ubera izan ziren Okendon antolatutako ekitaldi politikoan hizlari.

Lehena hitza hartzen Rebecka Ubera izan zen. Madrildik iristen diren murrizketa politikak salatu zituen eta politika egiteko beste modu bat bada-goela aldarrikatu zuen, EH Bilduk aurkezten duen eredu

baita independentziaren aldeko giroa sortzen bultzatuko duela esan zuen Isasik.

Programari dagokionez, ekonomia juxtu eta gizarte solidario baten alde; jubilaria 65 urterekin, lan orduen murrizketa eta osasun sistema publiko ona aldarrikatu zituen "herriak ez du zertan ordaindu behar banketxeen kudeaketaren ondorioak". Horretaz gain "gure lurra zainduko dugu, ez dugu kartzularik nahi, ez erraustegirik". "Legebiltzarrean normalizazioa eramango duen alderdia da EH Bildu".

Ikusleen artean izan ziren Pablo Barrio alkatea eta Bilduko hainbat zinegotzi. Hauen lan onari ere eskertza egin zieten EH Bilduko bi ordezkariak oholztatik.

"herritarra da protagonista" "etorkizuna eraikitzen ari gara, Gipuzkoan lantzen ari garen eredu Euskal Herri guztira zabaldu nahi dugu". Akordio-rako eta elkarlanerako joera duen herri proiektua aurkezten dutela azpimarratu zuen.

Iñaki Isasik berriz, Rafa Diez Usabiaga "laguna" izan zuen gogoan. Asteazkenean Aieteko akordioaren urteurrenean zela eta "ETAk soilik bete du bere parte, adostutako bost puntutatik bakarra bete da". EH Bilduk pakegintzan

Lanbide eskolarentzat Ofizio eskola

Lasarte-Oriako Udalak eta Usurbilgo Lanbide eskolak astelehenean sinatu zuten hitzarmenaren arabera, Lanbide eskolak Udal-Ofizio eskola erabili ahalko du enplegu eta bizi osoko formakuntza eskaintzeko. Hitzarmen hau hiru urterako izango da eta luzatzeko aukera izango dela aurreratu zuten.

Sinatze ekitaldian Pablo Barrio alkatea, Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuak, Inmigratio, Kooperazio, Enplegu eta Emakume sailak zinegotzia, Usurbilgo Lanbide eskolako Patxi Vaquerio eta Iñaki Mugika eta Dioni Avila Enplegu saileko teknikaria izan ziren.

Egoerari irtenbidea

Era honetara, Gorka Lizarraga zinegotziak azaldu zuenez, Udalak Lasarte-Oriako biztanleriaren kualifikazio maila hobetzeko urratsa eman du akordio honekin eta aldi berean Udal-ofizio eskolari



Usurbilgo Lanbide eskolako kideak eta Udal ordezkariak Ofizio eskolaren aurrean.

erabilerari berria ematen zaio horrela.

Bestetik, Usurbilgo Lanbide eskolako arduradunek aipatu zuten, Lanbide eskolak duen leku faltari irtenbidea eman zaio erabaki honi esker.

Hala ere, Dioni Avila Enplegu saileko teknikariak adierazi zuenez, Udal-Ofizio eskola beste formakuntza zentron erabileratara irekia dago, "Buruntzaldeko edozein zentrok atek irekita izango ditu hau erabiltzeko."

Ikastaroak eta proiektuak

Honela, Usurbilgo Lanbide eskolako arduradunek agerraldian aurreratu zuten, galdaketa ikastaroa izango da bertan eskainiko den lehenengoa. "Luzuriaga enpresako langile eta langabetuak daude ikastaro honetan" aipatu zuten.

Honetaz gain, Zubilan proiektua, Enpresa Sorkuntza proiektua, autoformakuntza eta In-formatzen zerbitzua ere Ofizio eskolara hurbilduko dituzte.

HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde mahaietan aldaketak

Udalak bidalitako oharraren bitartez jakin arazi nahi da Basaundi Bailerako 8. zebakian kokaturiko "La Esperanza Auzo-Elkartean" zeuden hauteskunde-mahaiak, hau da, 11. ataleko A eta B mahaiak, lekuz aldatzen direla Udalaren Pabiloira, Ofizio-Eskolara, Kale Nagusiko 56. zenbakian.

11. atalari dagozkion kaleak ondorengoak dira Bista-Eder kalea, Loidi kalea 3, Oztaran plaza, San Francisco kalea eta Urnieta bidea. Horrela Ofizio eskolara joan beharko dira bozka ematera Bista-Eder, Loidi kalea 3, Oztaran plaza, San Francisco kalea eta Urnieta bideko bizilagunak.

DANTZA

Euskal dantza taldearen entseguak

Euskal dantza taldeak ikasturtea hasiko du asteartean. Entseguak astearte eta ostegunean izango dira 20:00etatik 21:00etara. Entseguak Landaberri BHN egingo dira eta helduentzako ikastaroa da honakoa. Informazio gehiagorako edota izena emateko entsegu orduetan azaldu beharko da.

MUSIKA

Jalgin Mr Dubbin-en emanaldia

Larunbatean Euskararen Maratoia ospatzearekin batera Jalgi Kafe Antzokiak ere musika gau berezia antolatu nahi izan du. Bertan Mr Dubbin DJ-aren emanaldia izango da 23:30ean hasita. Besteak beste funky, salsa eta musika afrikarraz gozatu ahal izango dute bertara gerturatzin direnek.

Datorren ostiralean berriz, urriaren 26an, 23:00etan Kantagin jazz emanaldia izango da Jargin ere. Iñaki Salvador pianoan eta Ainara Ortega kantariarekin euskal kantu klasikoak jazz doinuean entzun ahal izango dira. Bi emanaldietarako sarrera doan da.

LANGABETUAK

Herriko plataforma bitan elkartzeko da

Herrian sortu berri den langabetuen plataforma kideak asteazken eta ostiraleko elkartzeko dira euren egoeraz jarduteko eta krisiari konponbidea bilatzeko helburuarekin.

Egun hauetan goizeko 11:00 etan Okendo plazan elkartu eta elkarrekin abiatzen dira txistuka Kultur Etxera bertan bilera bat egiteko. Protesta egiteko ere erabiltzen dute topaketa. Taldean parte hartzeko gonbitea luzatzen diete herriko langabetei.

LIBURUTEGIA

Peio Añorgarekin ipuinaren ordua

Haur liburutegian ikasturteko lehenengo ipuinaren ordua izan zen asteazkenean. Lehen saio honetan Peio Añorga idazle eta ipuin kontalaria aritu zen. Haurrak liluratuta izan zituen ipuinaren kontaketa guztiz murgilduta. Animalien istorio zirrargarria kontatu zien bere maleta eta motxila magikoen laguntzarekin. Asko izan ziren liburutegira gerturatutako haurrak.

Hurrengo, urriaren 30ean izango da, asteartea 18:00tan eta Bea Egizabal herriko ipuin kontalaria arituko da.



Jenny Garcia eta Ana Diez Usabiaga Aterpea elkarteeko ordezkariak

“Herria bizi da komertzioa bizi bada”

● Aterpea elkarteak argi du garai zailetan ere zerbitzu ona eta kalitatea eskainiko duela
● Orain arte bezala jarraituko du herriko merkataritza indartzeko kanpainak antolatzen

Aterpea 1993an sortu zenetik asko aldatu da Lasarte-Oriako merkataritza, negozio asko itxi egin dira, sortu berriak ez dira asko, baina marxan daudenak ahalagin handia egiten ari dira herritarrei hurbileko aldi kalitateko zerbitzu eskaintzeko. Aterpea elkarteak ezkerreko aldean egiten ari den herriaren garatzen diren bezeroei erakusten duten konfiantzarik erregatik, "azken finean merkataritza merkatariek egiten dute baina Lasarte-Oriako herriaren eta herritarrenkin batera".

Jenny Garcia da Aterpea elkartearen presidentea eta 2011tik, Ana Diez Usabiaga aldiak, sortu zenetik ari da merkataritza eta herriko merkatariek elkarrekin. Biek elkarri gura Aterpea izan duen bilakaeraren itzi gisa garai honetan diren in- izi, asmo eta eronken berri izateko.

Aterpeko ordezkariak alontzen dute merkataritza ez dagoela momenturik onenean eta merkatariek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta laguntza erakusten dute. 27 diru: "momentu baxera da erakunde eta abarrentzat, ez dago ezerrakoa dirurik".

Baina herritarrenkin batera aurrera egin nahi dute, ahal den neurrian eskaintza onak eginez eta herriko merkataritza buitzatzeko kanpainak ezberdinean eusiz.

Esker ona adierazi dute Aterpeko ordezkariak, herrian erostenketak egiteko oihutara duten bezeroen jarrera eta konfiantzazarengatik: "Lasarte-Oriako merkataritza dendari- rik egin dugu, baina Lasarte-Oriako herritarri eta bertako bezeroei esker" eta aurrera begira ere bai kor ageri dira: "Merkatariek ahalagin handia egingo dugu herria bizirik".

horri begiratzen dugun, baina ez ditzazuelako zirikrik sartu. Berdin da jateko, taberna, kritikak eta zuturak gara zuzen Aterpea lehenikatu kanpua. Berak jakinarazi digu- nak gero eta gehiago kontatuta lorzen ditugu eta".

Batasun taldea
Aterpeko kiდეkek ez dute us- te krisia gauetik gozera etori- denik, "aspaldi hasi zen. Estrategia oso ondo kalkula- tua izan da, pikkanaka makurtu gaituzte. Baina, ez dago batasunik, etxean jarra- itzen dugu, etxean hitz egiten dugu, zergatik ez gara egoerari aurre egiteko elkartzen?"

"Niri tokatzen ez zaidan bitartean, besteena bost axola, herrikoak bihurtu gaituzte, individualismoa nagusitu da beste ezeren gainetik eta horretara oihitu gara. Alzera gaituzte, eta bizi maila jaitsi egin dugu denok, maila baxean edo bestean".

Zuhurtasuna
Aterpeko ordezkariak alor- tzen dute, astegun gorrian komertzioetan ez dabilela ia inor. "Bezero asko ez dira kalera atera ere egiten, ezta zer dagoen kustumere ere. Aste- tabernak bete egiten dira eta ez dimudi kisi handirik dago- nik, baina asteagunetan, ez Dena den, gauza onak ere baditu egungo egoera honek Aterpeko ordezkariak ustez, "haloia ematen dugun ure- tan bazterrean tuzi den horri, azken urteotan saltearri ona. Zen garrantzitsua, prezio ona bitartzen zen eta, drain, bai,

Maite IB ETELU
IB Oso onak
IB Akabuntzia
IB Inmobiliaritza
IB Zerbitzuak
IB Argiztasunak
IB Arretuak eta asistentzia

LUSSO JAURILANITZA
EUSKO JAURILANITZA

Bideo Lagunak
Donostia Etorbidea 2 - Lasarte-Oria
Tel: 943 373134
www.bidelagunak.com

Aterpea
Lasarte/oria

Aterpea
Juan XXIII, 10 - LASARTE-ORIA
Tel: 943 362353
www.merceriaarterpea.com

INFORMATIKA
MANUTENE-AUTOMEDIA

ARREGUI
Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943 361080 - Tel/Fax: 943 372521

MAUXA RENO DENDA
Lentzeria
Barruko arropa
Pimarrak
Pablo Muciozabal, 1
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 360975

ekain
liburutegia
Pablo Muciozabal, 2
20160 Lasarte-Oria
Tel/Fax: 943 36 82 28
www.ekain.net

IZARRA
BITXITEGIA
Gestoiti kalea 19 - Tel: 943 371384
20160 Lasarte-Oria
Tel/Fax: 943 364945
www.izarrabixitegia.com

ANAR plaza 4 eta 6, beheko - LASARTE-ORIA
Tel: 943 364886 - Fax: 943 372117

HARATEGIA URRALATEGIA
Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943 372668 Fax: 943 370737
paxclarranaga@telefonica.net
www.patxilarranaga.com

Hurte
OLIVETORAK
Nagusia 34 - Oria
20160 - Lasarte-Oria
Tel: 943 365626

GOXOGI
Gehoki kalea 3
Lasarte-Oria
Telefonoa 37 08 48

MAYA
Lentzeria
Kortese-denda
Hipodromo etorbidea 8
LASARTE-ORIA
Tel: 943 383865

Maiane
Ustien 4
20160 Lasarte-Oria
Tif. Fax: 943 37 08 46
652.771.101

LIZARRI OPTIKA
Hipodromo etorbidea 8
(Anbulatorio zahararen aurrean)
Tel: 943 366482
LASARTE-ORIA

ORMAZABAL
LOBADENDA
Nagusia 33 - Tel: 943 361535
www.ormazaballobadenda.com

OHELA
HARATEGIA
Hipodromo etorbidea 8 - Lasarte-Oria
Tel: 943 361885
Kale Nagusia 41 - Lasarte-Oria
Tel: 943 363912

NOGUES
Guzuzaindara modua
LOGI
Nagusia 21 - Lasarte-Oria
Tel: 943 361403

BURRUNDENXA
SYKOA
Nagusia 35 - Lasarte-Oria
Tel: 943 361195

OHELA
HARATEGIA
Hipodromo etorbidea 8 - Lasarte-Oria
Tel: 943 361885
Kale Nagusia 41 - Lasarte-Oria
Tel: 943 363912

ABREU
Garaioa 2 - LASARTE-ORIA
Mihazaindara modua
Tel: 943 365846

VENTANAS
SAN MIGUEL
Zirkuitu ibilbidea 10
(gasolindegiaaren atzean)
Tel: 943 362457 - LASARTE-ORIA

aldaz
Datu gure zerbitzuak eragartzeko
horriz klinika - clinica dental
943 366 377
Lasarte-Oria 20160
Elogibar 20870
www.dentalaldaz.com

ZUMABURU
LIBURUDENDA
Nagusia Kalea 46 beheko
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 371306

URRIZOLA
MERTZERIA - DROGERIA
Kale Nagusia 42
Tel: 943 362979



Jenny Garcia da Aterpea elkartearen lehendakaria 2011tik. Ana Diez Usabiaga, aldiak, sortu zenetik dago elkarrean eta biek aurrera aterpea eta egun dituen eronketak kontatu dituzte.

LABURRAK.-

Basaundi-Leitza bizikleta irteera

Basaundi bailaratik Leitzarako txirrinda irteera ohitura bihurtu da gure herrian.

Aurten azaroaren 3an larunbata goizeko 8:15ean aterako dira Lasarte-Oriatik eta herritik Leitza dauden 60-70 kilometroko egingo dituzte. Leitza mokadu bat hartu eta bazkal ordirako, Lasarte-Orian egongo lirarteke parte hartzaileak.

Nahi dutenek indarrak berreskuratzeko, Buruntz Azpi elkar-teen paella gozoa bazkaltzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek deia luzatu dute nahi dutenek parte har dezaten.

Buruntzaldea IKT-ren aukera zabal

Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldeak haurrentzako eta helduen-tzako eskaintza zabal du denboraldi honetan.

2003an eta lehenago jaiotako haurrentzako larunbatetan estiloak irakasteko saioak martxan jarri ditu. Igeriketako oinarri-ko habileziak eta igeriketako estilo desberdinak erakustea dira helburu nagusia.

Saioak larunbatetan dira, 11:45etatik 12:45etara bitartean. Izan ematea zabalik dago oraindik, baina plazak mugatuak dira.

Bestalde, master atala ere martxan da. Atala triatloiariek, ur irekietako igerilariak, igerilari afizionatuek eta abarrek osatzen dute eta honetan 18 urteik gorako edonork hartu dezake parte.

Masterren entrenamendu egunak astelehen, asteazken eta ostiraletan dira eta 3 ordutegi aukera dago: 7:10etatik 8:10etara, 16:15etatik 17:15etara eta 20:15etatik 21:15etara. Azken ordutegi hontan igeri egiteko aukera mugatua da.

Interesaturik dagoen edonork informazio gehiago 696 506 632 telefononon eskuratu dezake, edo bestela astelehenetik ostira-lera bitartean, 17:30etatik aurrera igerilekuan Borjagatik galdetuz.

OHARRAK.-

Benedikako ehiza postuak

Buruntz-Azpi elkar-teen jakin arazten du, Euskararen 8. Maratoia dela eta, urriaren 20 eta 21ean 11 eta 21 zenbaki arteko postu-ak bakarrik zozketatuko direla.

Era berean, gogora arazten dute, Benedikako postuetako zozketak egunero 20:00etan direla Buruntz-Azpi elkartean.

Errugby eskolako entrenamenduak

Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako antolatzaileek jakitera eman dutenez, kadete, infantil federatua eta eskolarteko infantilak gaur arratsaldean 17:45ean geratu dira Micheline Zarautzera entrenatzera joateko.

JUDO.-

LOKEko judokak lehia bizian

Oscar Garrido bosgarren izan zen Vigoko txapelketan

LOKEko judo ataleko lagunak aurreko asteburu-ean Vigo eta Italiara bidaiatu egin zuten nazio-arte-ko txapelketetan parte hartzeko. Bietan emaitza onak lortu zituzten. Vigon Oscar Garridok bosgarren postua egin zuen. Italian berriz, Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin brontzeko domina lortu zuten.



LOKEko Fermin Balda eta Oscar Garridok indartsu hasi dute ikasturtea.

G. ARISTEGI

Nerea EIZAGIRRE

LOKEko judokak ederki hasi dute denboraldia. Lehengo asteburu-ko kadeteak Vigon izan ziren eta eta Gorka Aristegi entrenatzaile Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin Palermon izan zen.

Kadete mailako Espainiako Superkopa lehiaketako lehen jardunaldia izan zen urriaren 12an, Vigon eta taldeko Oscar Garrido eta Fermin Balda izan ziren bertan.

Oscar Garridok 90 kilo azpiko mailan bosgarren postua lortu zuen.

Final laurdenetan suediar baten aurka galdu zuen Oscarrek. Bigarren aukeran ez zuen hutsik egin, honetan hiru borroka egin eta hirugarren posturako lehia sartu zen.

Baina Menendez asturiarrak garaitu zuen lasarteoriatarra eta bosgarren izan zen.

Garridoz gain, Fermin Balda ere izan zen 66 kilo azpiko lehiari eta zazpigarren postuan amaitu zuen.

Honek kanporaketetan hiru borroka izan zituen. Final zortzirenekoetan huts egin zuen.

Hirugarren Palermon

Bestalde, Palermon 11^o Torneo Internazionale di Judo Memorial G. Falcone e P. Borsellino nazioarteko txapelketa burutu zuen.

Gorka Aristegik zuzenduta hirugarren postua eskuratu zuen Hondarribi eta Oiar-tingo gazteek osatutako taldeak. Entrenatzaileak azaldu

digunez, herriko Mario Garrido joan behar zuen Italiara baina lesionatua dagoenez ezin izan zuen.

Txapelketa honetan Italia-ko eta Frantziako hainbat talde-ko aurka egin zuten lehia larunbatean eta igandeko finalerako txartela lortu zuten.

Gorka Aristegik azaldu digunez, txapelketan guztira, bost topaketa irabazi zituen hondarribitarren taldeak eta bi galdu.

Era honetara, brontzeko domina eta esperientzia handia eskuratu zuten gazteek.

LOKEko entrenatzaileak aipatu digunez, asteburu honetan ez dute lehiaketarik, baina azaroan ez dute atsedeni izango, asteburu txapelketa izango baitute.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 20
Berio, Donostia, 09:00etan
 Santo Tomas Lizeoa-Ostadar
I. Infantil
Zubieta, 09:30ean
 Ostadar-Tolosa
Infantilen Ohorezko maila
Zubieta, 12:00etan
 Ostadar-Ordizia *Infantil Txiki*
Rezola, Añorga, 15:30ean
 Antigubia Luberri-Ostadar
Emakumezkoen maila
Zubieta, 16:00etan
 Ostadar-Ontzerra
I. Erregionala
Argixao, Zumarraga, 16:00ean
 Urola-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila
Asti-txiki, Zarautz, 17:30ean
 Zarautz-Ostadar *I. Jubenil*
Harane, Usurbil, 19:30ean
 Ostadar-Urola
Erregional Ohorezko maila

Igandea 21

Harane, Usurbil, 09:00ean
 Texas Lasarteerra-Usurbil
I. Kadetea
Harane, Usurbil, 10:30ean
 Texas Lasarteerra-Danena
I. Erregionala
Ubiltarte, Andoain, 12:00etan
 Ordizia-Ostadar *Alebrina*
Harane, Usurbil, 12:15ean
 Ostadar-Olarizu
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga
Zubipe, Hernani, 16:00etan
 Hernani-Ostadar *I. Kadetea*

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 20
La Benedicta, Sestao, 16:00etan
 Sestao-Aldaz H.K.
Nazional III. maila
Beraungo frontoia, Erretera, 17:00etan
 Gamon-ISU Leihok
Gipuzkoako Liga

PILOTA

Ostirala 19
Lazkao, 18:30ean
 LAPKE 2-Intza
Eskuz binaka, II. kadetea



Larunbata 20
Hernani, 14:00etan
 Hernani-Intza I
Eskuz binaka, jubenia
Michelingo pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Añorga
Eskuz binaka, II. nagusia
Michelingo pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Azkoitia *Eskuz binaka, I. jubenia*
Michelingo pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Oiarpe
Eskuz binaka, infantilak I. urtea

Fanderia, Erretera, 16:15ean
 EPLE-Intza
Eskuz banaka, infantilak 2. urtea

ERRUGBYA

Larunbata 20
Asti, Zarautz, 10:00etan
 Beltzak Ostadar Jalai-Bera-Bera
Infantil eskolariek
Asti, Zarautz, 11:00etan
 Beltzak Ostadar Jalai-Durango
Infantil federatua
Asti, Zarautz, 12:30ean
 Beltzak Ostadar Jalai-Baztan
Euskal Liga, kadetea

**ATLETISMOA**

Larunbata 20
Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:00etan
 Landaberri eta Sasoea Ikastetxe-ko alebin eta infantil mailako gazte-koek pistako eskolarteko lehiaketako parte-hartze libreko proba dute.
 Igandea 21
Donostia, 10:00etan
 Herriko hainbat atletek eta patinatzaileek XVI. 15 km. Donostiako Klasikoan proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 21
Biyak Bat, 08:30ean
 Ostadar SKT-ko zikloturistek irteera dute Artadira.

Agenda

Larunbata 20-Igandea 21, Okendo plaza



Euskararen festa handia

Lau urtetik behin, 40 orduz euskara bihotzetik plazara ateratzen da Lasarte-Orian. Larunbateko goizeko 8:00etatik igande gaueraino Okendo plazan ekitaldi ugari izango dira: haurrentzako egitaraua, gazteen txokoa, kirol ekintzak, txapelketak, otorduak, e.a. eta noski zortzikotea bertan izango da guztia zuzentzen. Animatu eta hurbildu Euskararen 8. Maratoira!!!

Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Azteazkena 30, 18:00etan

Bea Egizabalek 6, 7 eta 8 urteko haurrei ipuinak kontatuko dizkie.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 27, 18:00etan

"Azken Portua" haurrentzako antzerkia eskainiko du Dejabu antzerki taldeak. Kukuka antzerki eskolak proposatutako saioa. Sarrerak leihatilan 3,40 euro; interneten 3 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Urria osoa

Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.

Donostia

Antzerkia

LUGARITZ
Ostirala 19, 20:00etan

Kukuka Antzerki eta dantza eskolako kideek "Sahara, isiltasunaren ahotsak" antzerkia eskainiko du. AZ sarearen barruko ekintza, EHAZEK antolatuta. Sarrera 3 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 28, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Madagascar 3" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro.



Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Larunbata 20, 23:30ean

Euskararen Maratoia dela eta, Saldia Mr Dubbin-en saioa. Estilo desberdinez (funky, salsa, musika afrikarra...) gozatzeko aukera.

Ostirala 26, 23:00etan

Kantaginjazz emanaldia izango da.

Iñaki Salvador piano jole eta Ainara Ortega abeslariaren eskutik Euskal Kanta klasikoak jazz formatuan.

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 26, 23:45ean

Punk Rock gaua izango da Sutura eta Xuorum taldeen eskutik. Sarrera 5 euro. Kultur kale zirkloaren barruko ekintza.

EL BAR DE MAU
Larunbata 27, 20:00etan

Defectos Comunes (posthardcore) eta The Animal Within (alternative rock) taldeen kontzertua izango da.



Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urriaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

Marrakzi eta margo ikastaroa

Lasarte-Oriako auzo elkarteak antolatzen duen marrakzi eta margo ikastaroko klaseak hasi dira. Hauek astezken eta ostiraletan dira, 18:30ak eta 20:30ak bitartean Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

Herriraren elkarretaraztea

Hileko azken ostiralero bezala, urriaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte har dezaten.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera ematen dute bulegoan gauza hauek daudela jasota, betaurreko graduatu batzuk, bi

eguzkitako betaurreko, hiru mugikor, ezkontza eraztun bat, mp3 bat, larruzko poltsa bat eta mikrotxipen plaka bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesatuta dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela 09:00etatik 13:00etara.

Iradozikunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalarri herritarren parte hartzea sustatzeko iradozikun orrialdea duela gogora arazten du.

Orrialde hau Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradozikunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Iradozikun guztiak kontuan hartuko dira eta alkatetzatik konpromisoa hartzen dute lehen bai lehen erantzuna emateko, parte-hartzea eskertuz.

Hemeroteka

Duela 1026 ale



1994 urteko azaroan etorkizunari begira merkataritza txikiak zuten kezka argitara eman genuen TXINTXARRIK erreportaje batean. Orduan, 300 bat komertzio txiki eta ostalaritzako 110 zeuden herrian.

Herriko merkatarien egoera larriaren zergatiak krisi ekonomikoak, merkataritzako gune handiekin lehiatu beharra eta herritik kanpo erosketak egiteko ohitura zirela azpimarratzen zuten Aterpea elkarteak. "Denda itxi gabe mantentzea da merkatariek duten eronka... Argi dago gure etsaia ez dela ondoko dendaria, kanpotik datorrena baizik".

Honela, egoerari aurre egiteko aukera espezializazioa, merkatarien arteko batasuna eta elkarlana zirela aipatzen zuten.

Era berean, erreportajearen herriko hiru merkatariren iritziak irakur daitezke. Hauek azken urteetako salmenten jaitsiera, kompetentzia eta merkataritza txikiaren subsistentzia ekonomikoak aipatzen zuten. Honetaz gain, egoerari buelta emateko merkatarien elkarlana eta herritarren kontzientziazioa beharrezkoak zirela azpimarratzen zuten.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Atzera kontaketa hasi da!!

Euskararen Maratoian milaka ekintza izango dira animatu eta parte hartu!

Bihar goizeko 8:00tan hasiko da Euskararen Maratoia. Asteburuan zehar burutuko diren ekintza zein lehiaketan parte hartzeko oraindik aukera dago. Hori bai aurrez izena eman beharko da gaur Ttakunen eta asteburuan Okendon jarriko den dendan. Sarean egiteko aukera atzo itxi zen beraz azkar ibili eta ez galdu udaletxe berria edota Benedika mendia eza-gutzeko aukera!



Harria jaso eta festari hasiera emango zaio bihar goizeko 8:00etan.

Euskararen Maratoia festa parte hartzailea da eta herritarrek beste behin ere honetan parte hartzeko gogoaz azaldu dute. Aste hauetan ekintza ezberdinetan laguntzeko izena eman dute askok baita udaletxe berria, Benedika, proba konbinatua, babarrun lehiaketan parte hartzeko ere.

Hala ere, hainbat txandetan oraindik lekua dago eta izena emateko aukera. Gaur ostirala, Ttakuneko bulegoan

ekintzetan izena emateko aukera egongo da bertatik pasata edota 943 371 448 telefonoan.

Asteburuan zehar berriz, Okendon jarriko den dendan egin beharko da. Orain arte sarean euskararenmaratoia.com orrialdean izena emateko egon

den tartea itxi egin da beraz gogoan izan Okendon jarriko den dendan egin ahal izango direla izen-emate guztiak.

Txartelak dendan

Bestalde kamisetak eta jatorduetarako txartelak ere dendan eskuratzeko parada

izango da asteburu osoan zehar. Larunbateko bazkarirako txartelak agortuta daude eta antolatzaileek gainontzeko jatorduetarako txartelak lehen bait lehen hartzea gomendatzen dute.

Larunbateko afariko txartelak daude, honetan menua barazki krema, haragi gisatua, edaria, postrea, kafea eta kopa izango da. Igandeko bazkaria babarrun jana izango da eta gauean berriz, txekor errea, Okendo plazan bertan erretakoa. Gogoratu menua ezberdina izanik, jatordu bakoitzak prezio bat daukala.

Pintxoak

Pintxoak ere izango dira Maratoian. Larunbateko pintxo potea Artizar, Jalgi, Insausti, Abend, Buenetxea, Ilargi, Arkupe, Gure Etxea eta txosnan izango da. Honetan igandean pintxo bereziak dastatzeko aukera izango dela aurreratu dute antolatzaileek, "euskararen maratoiaren pintxoak".

Txintxarri.info zuzenean

Egitariuari dagokionez, azken astean hainbat aldaketa egin dira hau dela eta Txintxarri.info -ko atal berezian duzue eskuragarri azken bertsioa. Hala ere, kontutuan izan bertan ekintza nagusiak jaso direla eta ohol-tzako ezusteko asko ez direla ageri.

Maratoian zehar abestuko diren kanten letrak liburuxka batean jaso dira herritarren artean banatzeko eta hau ere eskuragarri duzue.

Gainontzean etxean, herritik kanpo edota lanean egongo diren herritarrek txintxarri.info orrialdean zuzenean jarraitu ahal izango dituzte Maratoiko ekitaldi nagusiak.

Horrela larunbateko 8:00etan hasiera ekitaldia zuzenean emango dugu gure web orrian, gaueko giroa ere ikusteko aukera izango da gau erdian eta igandean berriz, Maratoian agurra emango dugu 22:30etatik aurrera.

Animatu eta parte hartu Euskararen Maratoian ez da aspertzeko tarterik izango eta!

euskararen maratoia

ANIMATU partehartzera!!

Udaletxe berria ezagutu
Babarrun txapelketa
Benedika mendira igoera

Ekintzetan **IZEN-EMATEA, KAMISETAK**
eta otorduetako **TXARTELAK**
salgai Okendo plazako dendan

Urriak 20
Afarria 18 euro

Urriak 21
Bazkaria 6 euro
Txekor jana 9 euro

24 ordu
falta dira

www.euskararenmaratoia.com

Lasarte-Oria 2012_{ko} urriaren 20_a eta 21_a